

BILERETAN PARTE HARTZEKO HIZKUNTZA-ESTRATEGIAK

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Maiatzak 12 eta 19	IKASGELA/ TOKIA	28. gela IVAP
IRAUPENA	10 ordu	ORDUTEGIA	09:00-14:00
MATRIKUL A EPEA	Apirilaren 24ra arte	ONIRITZI EPEA	Maiatzaren 1era arte
IKASLE KOPURUA	15 gehienez ere	HARTZAILEA K	EAEko Herri Administrazioetako langileak
IRAKASLE A	Manu Marañón	MATERIALA	
DISEINUA	Manu Marañón	AZPIEGITUR A	Proiektorea, ordenagailua, arbela, altabozak eta 4 entxufetako luzagailua

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK

- Antolakuntzaren garrantzia balioestea
- Kudeaketa eraginkorra izateko tresnak edukitzea
- Prozeduraren garrantzia zein den jakitea
- Pertsonen arteko harremanak hobetzea
- Lankidetzaren sustatzea eta erabakiak ahalbidetzea

HELBURU ZEHATZAK

- Bileretatik ahalik eta gehien nola lortu ikastea.
- Estrategiak erabili egoera gatazkatsu edo korapilatsuak kudeatzeko
- Dinamizatzailearen eginkizuna azpimarratzea
- Bileretako parte hartzeen eraginkortasuna
- Pentsamendua piztea. Gehiago jakitea eta hobeto erabaki ahal izatea
- Norberaren baliabideak zein diren eta horiek kontzienteki nola erabili jakitea
- Konfiantza-giroak sorraraztea. Motibazioa indartzea.

GAITASUNAK

- Denbora hobeto aprobetxatzea
- Konfiantza eta autoestima
- Erantzunkizuna hartzea
- Prestaketa eta kudeaketa eraginkorragoa
- Talde dinamika hobetzea
- Galdera gehiago eta hobeak egitea
- Entzumena landu
- Komunikazio interaktiboa kudeatzea
- Egoera gatazkatsuak era positiboan kudeatzea

BILERETAN PARTE HARTZEKO HIZKUNTZA-ESTRATEGIAK

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

Teoria eta praktika uztartzen dira. Ikasleek ariketak prestatuko dituzte. Talde eztabaida erabiliko dut. Talde txikitan ere lan egingo dugu.

PROGRAMA

- Zergatik egiten dute porrot bilerek? Zergatik dira hain beharrezkoak?
- Bilera: komunikazio-prozesua. Bilera motak
- Prestaketa: helburuak eta gaiak.
- Bilera baten egitura
- Hasiera. Aldez aurreko ikuspegia eta argazkia.
- Dinamizatzailaren eginkizuna.
- Kudeatzeko eta dinamizatzeko abileziak
- Egoera delikatuen (gatazkak, etsaitasuna...) kudeaketa
- Parte hartzeko hizkera landu
- Entzute aktiboa: Psikologikoki prest al zaude?
- Galderak egiteko artea.
- Komunikazio interaktiboa. Nola erantzun beha dugu? Inprobisazioa
- Feedback positiboa: Zer egin da ondo? Zer hobe daiteke?
- Kalitateko lengoaia. Deskribapena, errespetua eta irmotasuna
- Amaiera. Laburpena. Konpromisoak. Segimendua
- Bileren ebaluazioa. Feedbacka

EBALUAKETA

Ikastaro bukaeran idatzizko ebaluketatik aparte ahozko ebaluaketa ere egingo dugu banan banan

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMEND UA

% 80ko bertaratzea, eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

PREZIOA

114 euro

OHARRA